



## ■ MENDIRIZ MENDI

### Apuntatzeko azken eguna Tendeñerara irteera egiteko

Mendiriz Mendik irteera egingo du asteburuan, Tendeñera mendian bi egun. Apuntatzeko, gaur da azken eguna: bazkideek 65 euro, besteek 75 euro. Izena emateko, pasa elkartetik (Iturregi plaza), 20:00etatik 21:00etara. Larunbatean abiatuko dira Atsegindegitik, 04:00etan, eta gaua Linas de Brotoko aterpean pasako dute. ■

## ■ HERNANI WUKROREKIN

# Emozioa eta esker hitzak, ongi etorrian

*Herritar ugari zituzten zain atzo, Angel Olaranek eta Wukrotik etorritako neska-mutilek. Elkartasun jardunaldiek gaur izango dute segida, Olarenek emango duen hitzaldiarekin.*

EMOZIOA hitzak definitzen du ondoen atzo Udalean izandako ongi etorriak. Udal ordezkariak zituzten zain Angel Olaran eta Wukrotik etorritako gaztetxoek; baina baita dozenaka herritar ere. Besarkadak eta muxuak banatuta, begiak dir-dir batean zituztela hasi zen ekitaldia. Esker hitzak izan ziren nagusi; bai Luis Intxauspe alkateak eta baita Olaranek ere. Hernanira iritsi bitartean egindako bidea azaldu zuen Olaranek, eta datozen egunetan izango diren jardunaldietara gerturatzeko gonbita egin zieten herritarrei. Egun horietan elkarren berri izateko aukera izango dela, gogoratu zuen.

**Hitzaldia Olaranek, gaur**  
Hamabost laguneko taldea etorri da Wukrotik Hernanira,

eta astelehenera bitartean, bertan geratuko dira. Elkartasun Jardunaldiak antolatu ditu Hernani Wukrorekin GKEk, eta beraz, ekintza dezente izango dituzte, egun horietan. Aurrenekoa, gaur bertan. Hitzaldia emango du Angel Olaranek Biterin, 19:00etan. Wukroko egoera eta bertan egiten ari direna jarriko du mahai gainean.

Larunbatean, kirol eguna antolatu dute: goizean Antziolako pistan izango da giroa, eta arratsaldean Ereñotzuko frontoian. Igandean, meza emango du Olaranek Agustinetan, eta elkartasun bazkaria ere egingo dute. Txartelak gaur salduko dituzte, ferian. Eta azkeneko eguna, astelehena, Hernani Institutuan pasako dute, bertako gazteekin. ■



Ongi etorriko argazkiak eta bideo osoa ikusteko: [www.kronika.net](http://www.kronika.net).

## ■ KARABEL EGUNA

# Lehertzeko moduko larunbata, Karabelen

*Karabel Eguna ospatuko dute larunbat honetan, eta egitarau zabala osatu dute. Gelditu gabe pasako dute eguna, goizetik gauera, jolasean eta barre algaraka.*

EGUN polita izango da larunbatekoa, Karabelera inguratzen direnentzat. Karabel Eguna ospatuko dute, eta egitarau oso zabala prestatu dute, beste behin: tortilla txapelketa, haur jolasak, zezen suzkoa... Nobedade bezala, *Kiki, Koko eta Moko* pailazoaren emanaldia izango da goizean; eta arratsaldean, bingo herrikoia egingo dute.

Eguna hasteko, ibilaldia egingo dute patinetan, mugi-

kortasun astearekin bat egingo da. Horretarako, 09:15etan azaldu beharko dute, patinetan aritu nahi dutenek.

### Saria tortilla goxoenari... eta berezienari

Eguerdian egingo da tortilla txapelketa, eta nahi adina tortilla aurkeztu daitezke, 13:15 baino lehen. Bi sari emango ditu epaimahaiak: tortilla goxoenari, eta berezienari. ■

### KARABEL EGUNA, irailak 27

**09:30**, Patinetan ibilaldia, mugikortasun astearekin bat egingo da. 15 minutu lehenago aurkeztu behar da. Bukaeran hamaiketakoak.  
**10:00**, Diana eta haur jolasak.  
**11:30**, Buruhaundiak.  
**12:00**, Pailazoaren emanaldia: *Kiki, Koko eta Moko*.  
**13:00**, Ping-pong pelotekin jokoak.  
**13:15**, Tortilla txapelketa-dastaketa. Nahi adina tortilla aurkeztu daitezke, 13:15 baino lehen. Bi sari:

tortilla bereziena eta goxoenari.  
**14:00**, Bazkari-pikoteoa eta barrikotea.  
**15:30**, Bingo herrikoia.  
**16:30**, Haurrentzako jolasak, eta animatzen diren helduentzat: rompeputxeroak, arrautza lasterketa, aulki jokoak, arrautza jaurtiketa...  
**19:00**, Txokolatada.  
**20:30-00:00**, DJ Nemus.  
**21:00**, Zezen suzkoa.  
**23:00**, Traka.

## ■ MUSIKA ESKOLA

### Plaza bat libre, klarinetea ikasteko

Ikasturte berrirako, plaza bat libre dago Hernaniko Musika Eskola Publikoan, klarinetea ikasteko. Interesa dutenak, pasa bulegotik (Atzieta, 4), 13:00etatik 20:00etara; edo deitu: 943 33 70 50. ■

## ■ DOINU ZALE

### Matrikula egiteko azken eguna gaur

Doinu Zale musika eskolan, hasi dute ikasturte berria, baina oraindik ere badago aukera, apuntatzeko. Gaur da azken eguna matrikula egiteko. ■

MARI FE  
ARRANDECIA

NAGUSIA 36 943 550 489

tripontzi taberna

ARRAIN  
FLEXIBOZKEREkin  
EGITEN DUGU LAN!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI  
943 555 726

AKELENEA  
Erretsegi - XIX Mendeko Sagardotegiak

Menua  
Foie Micuit  
Langostino entsalada  
Onddo eta ahate ojaldrea  
Legatza saltsan  
Entrekota  
Postrea, edaria, ogia, kafea

Koldo eta Ana

25€ (BEZ barne)

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

☎ TELEFONOAK • TAXIAK: 943 550093 • UDALTZAINGOA: 092 • DYA: 943 464622  
 • AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 • ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 • JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103  
 ☩ FARMAZIAK • Egunez: Chucla Kardaberaz 48 943 551793 • Gaez: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077

**EGURALDIA** **GAUR** Hobera egingo du eguraldiak, eta goizeko lainoak desagertuz joango dira, ostareei lekua egiteko. Tenperatura pixka bat gora, baina giro freskoa. Min.14° / Max.20°

**BIHAR** Eguraldi eguzkitsua izango dugu, nahiz eta goizean goiz laino batzuk egon. Tenperaturak gora egiten jarraituko du. Min.13° / Max.23°

(euskalmet)

## ■ PALA MUNDUKO TXAPELKETA



Amaia Irazustabarrena (ezkerretik hirugarrena), Mundialeko podiumean, selekzioko kideekin.

## Irazustabarrena txapeldunorde Mexikoko Mundialean

Munduko Txapelketa haundia eginda, finalerako sailkatu zen, baina galdu egin zuen Mexikoren kontra: 15-4 eta 15-6.

MUNDUKO txapeldunorde izan da Amaia Irazustabarrena palista hernaniarra. Mexikoko Mundiala jokatu du palako F30 modalitatean, Estatuko selekzioko kideekin: Maider Mendizabal anoetarra, Maite Ruiz de Larramendi nafarra eta Raquel Mico valentziarra.

Txapelketa haundia egin dute laurak. Ligaxkan aurkari zailak izan zituzten, eta hiru partidutik bakarira irabazi zuten. Horrela, Cuba zuten aurkari kanporaketan, beste

Ezustekoa eman zuten semifinaleran Argentina kanporatuta, baina Mexikok ez zien aukerarik eman final haundian

multzoko aurrea. Eta irabazi egin zuten, ondo irabazi ere: 15-8, 11-15 eta 10-4.

**Semifinaletan, ezustekoa** Argentina zuten hurrengo kon-

trarioa, semifinaletan. Haien kontra galdu zuten ligaxkan, eta argentinarrak ziren faborito. Baina kanporaketa haundia jokatu zuten, eta 15-10, 10-15 eta 10-2 nagusitu ziren.

**Finalean, etxekoak nagusi** Finala beste kontu bat izan zen, ordea. Etxeko taldea zuten aurrean, Mexiko, eta aukerarik ez zuten izan: 15-4 eta 15-6 galdu zuten. Baina horrek ez zuen okertu egindako torneo haundia: munduko txapeldunorde. ■

## ■ LAB SINDIKATUA

### «LAB indartzea da Euskal Herriaren eta euskal langileriaren hauturik onena»

Hauteskunde sindikaletan ordezkari gehiago lortuta, langileen eskubideak borrokatzeko aukera haundiagoa izango duela azaldu du LABek.

HAUTESKUNDE sindikalak hasi dira, eta LABek prentsa oharrean azaldu du «LAB indartzea dela Euskal Herriaren eta euskal langileriaren hauturik onena».

Era berean, helburua Euskal Herria aldatzea dela dio: «Euskal Herriko langileriaren egoera eraldatzeko borroka egiten dugu, eta baita beste herrietakoena aldatzeko ere». Horretarako, LABen alde egitea onena dela azaldu dute: «zenbat eta LABeko militante

gehiago lan munduan, orduan eta aukera gehiago patronalaren gehiegikeriei aurre egiteko».

**«LAB, gehien igo den sindikatua»**

«Kritikatu, salatu eta alternatiba badagoela aldarrikatu» behar dela dio LABek, eta hain zuzen, «hauteskunde hauetan gure lerro eta jarrera sindikalak berresten ditugu».

Lan horren adibide da, LABen ustez, orain urte bete

patronalarekin negoziatzeko egindako saiakera: «gure hitzarmenak eta gure negoziazio kolektiborako eskubidea babesteko. Confedebek ezezkia esan zuelako ez genuen sinatu akordioa, eta guk argi dugu: patronalaren asmoei muga errealak jartzen zizkion akordiotik oso gertu egon ginen».

Hain zuzen, bide horretan jarraituko duela dio: «ez da kasualitatea lan erreforma onartu zenetik gehien igo den sindikatua LAB izatea». ■

## DONOSTIAKO ZINEMALDIA

AMAIA GARCIA



### Ezinezko amodioak eta erlazio hautsiak

Amodioa zineman ikusten den gai ohikoenetarikoa da. Amodioa hautsi ere egiten da, eta hori kontatzen saiatu dira Aire Libre pelikulan. Guztia saiakeran geratu da, pelikula jasanezina delako. Ordu terdi irauten duen pelikula luzeegia egiten da, agian istorio hau laburmetrai batean hobeto egongo litzateke.

Amodio istorio batzuk

ezinezkoak ere izaten dira batzuetan. Hori kontatzen du Félix et Meira pelikula kanadiarrak. Meira judutarra da, ezkondata dago eta alaba bat dauka. Bere bizitza hilda egotea bezalakoa da. Felix ezagutzen du eta bere bizitza aldatzen hasiko da. Istorio geldo, polit eta zuzena da, baina ez du ezer berezirik. ●

## ■ ARGIA EGUNA

### Kontzertua eta bazkaria, eguna 'argitzeko'

Argia Egunaren bueltan, bazkari ekologikoa eta kontzertua antolatu dira. Txartelak salgai daude.

ARGIA Eguna ospatuko dute larunbatean, Usurbilen, eta ekitaldi ugari antolatu dituzte. Tartean, bazkari ekologikoa egingo dute, garaiko eta Euskal Herriko produktuekin. Bertan bazkaltzeko aukera galdu nahi ez duenak, orain dauka momentua, txartelak erosteko: Oinddi eta Txili tabernetan daude salgai, 15 euroan.

Hernaniko fanfarreak egingo du diana, eta 12:00etan Argiazaleen topaketa izango da. Bazkalostean, berriz, bertso saioa izango da, 18:00etan: Amets Arzallus, Miren Amu-

riza, Julio Soto, Uxue Alberdi, Sustrai Colina eta Rosi Lazkano ariko dira. Sarrerak 5 euroan salduko dira, egunean bertan.

**Kontzertu bihar, Lasarten** Festa egun bat lehenago hasiko da, ordea. Kontzertua antolatu dute bihar, Lasarteko Manuel Lekuona kultur-etxean: Mikel Urdangarin, Anari, Pier Paul Berzaitz, Petti, Estitxu Pinatxo, Alboka taldea, Bide Ertzean eta Jon Basaguren. Sarrerak 15 euroan daude salgai, Oinddi eta Txili tabernetan. ■

## ■ XALAPARTA

### Aranora martxa, igandean

Igande honetan, Aranora martxa egingo du Xalaparta elkarteak. 08:30etan abiatuko dira elkartetik autobusez, Besabira joan eta bertatik 9 orduko ibilaldia hasteko, Aranora. Bazkaria egingo dute Kontzejun, eta ondoren, toka txapelketa. Bazkariara joateko, autobusa 12:00etan aterako da Xalapartatik. Itzulera 18:30etan egingo dute. Apuntatzeko zerrendak, Xalaparta elkartearen bertan daude. ■

## ■ CD HERNANI

### Mariskadaren zenbaki saritua: 352

CD Hernanik mariskada zozketatu du, eta zenbaki saritua 352 izan da. Irabazlea atera da honezkero: Mila Belategi. ■

## IRAGARKI MERKEAK

95 m2-ko PISUA ERDIALDEAN SALGAI, dena kanpoaldera, amueblatua eta eguzkitsua.

Deitu: 699 492 235

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbebrala, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)